

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Araua: EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2009/21/EE ZUZENTARAUA, 2009ko apirilaren 23koa, bandera estatuaren betebeharrak betetzeari buruzkoa.

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «DIRECTIVA 2009/21/EE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 23 de abril de 2009, sobre el cumplimiento de las obligaciones del Estado de abanderamiento» (*Diario Oficial de la Unión Europea*, L 131/132 de 28/5/2009)

2009/21/EE Zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 131/132, 2009/05/28koa)

2009/21/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA

2009ko apirilaren 23koa

bandera estatuaren betebeharrak betetzeari buruzkoa

(Testu egokia EEEri dagokionez)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR  
BATASUNeko KONTSEILUAK,

gizakiak itsasoan seguru egoteari eta itsas ingurunea babesteari dagokionez— itsasontzi bat gai dela egokitu zaion zerbitzua betetzeko, eta horrez gain, nabigatzaile gaituek zuzentzen dutela.

Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatuaz aztertu dute eta, bereziki, horren 80. artikuluan 2. paragrafoa,

(4) Behar adinako garrantzia eman behar zaio Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LANE) 2006an onartutako itsas lanari buruzko Hitzarmenari. Bertan, bandera estatuaren betebeharrak batzuei buruz ere hitz egiten da.

Batzordearen proposamena aztertu dute,

(5) 2008ko urriaren 9an, estatu kideek adierazpen bat onartu zuten, eta bertan aho batez aitortu zuten oso garrantzitsua zela nazioartean bandera estatuaren betebeharrak buruz eginko hitzarmenak aplikatzea, itsas segurtasuna hobetzeko eta ontziek eragindako kutsaduraren prebentzioan laguntzeko.

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute <sup>(1)</sup>

Eskualdeetako Komitearen irizpena aztertu dute <sup>(2)</sup>,

(6) IMOk estatuaren artean ontziak transferitzeari buruzko 2004ko abenduaren 20ko MSC/Circ.1140/MEPC/Circ.424 izeneko zirkularretan gomendatutako prozedurak aplikatu behar dira, bandera-aldaketa arautzen duten IMOren Hitzarmenetako xedapenak eta itsas segurtasunari buruzko Erkidegoko legeria sendotzeko. Prozedura horiek bandera estatuaren arteko harremanen gardentasuna ere sustatu behar dute, itsas segurtasunaren mesedetan.

Tratatuaren 251. artikuluan xedatutako prozedurari jarraitu diote <sup>(3)</sup>.

Alderdi hauek hartu dituzte kontuan:

(1) Erkidegoko itsas garraioaren eta hura erabiltzen duten herritarren segurtasuna, bai eta ingurumenaren babesa ere, bermatu egin behar dira une oro.

(7) Estatu kideen banderapeko eta haien erregistroetan baja emandako ontzietan buruzko informazioa edukitzea onuragarria da kalitate handiko ontzietan jardunerako. Horrez gain, lagungarria da, batetik, bandera estatuaren betebeharrak errazago ikuskatzeko; eta bestetik, administrazioen arteko baldintza-berdintasuna handiagoa izateko.

(2) Nazioarteko itsas garraioan, esparru zabal bat sortu da, itsas segurtasuna hobetzeko, bai eta ingurumena ontziek eragindako kutsaduratik gehiago babesteko ere. Horretarako, zenbait hitzarmen egin dira, eta Nazioarteko Itsas Erakundeak (hemendik aurrera, «IMO») ditu bere esku.

(8) Estatu kideei bandera estatu gisa gero eta hobeto jarduten laguntzeko, ikuskatu egin behar da aldi behin haien administrazioa.

(3) Itsas Zuzenbideari buruzko Nazio Batuen 1982ko Konbentzioko (UNCLOS) xedapenei eta IMOk jasotako hitzarmenei jarraiki (hemendik aurrera, «IMO Hitzarmenak»), horietan parte hartzen duten estatuak dagokie legeak eta araudiak aldarrikatzea, eta behar izanez gero, beste edozein neurri hartzea, haiek erabat bete daitezkeen. Izan ere, bermatu egin behar dute —

(9) Administrazio-prozedurak kalitatezkoak direla egiaztatzeak, Normalizazioaren Nazioarteko Erakundearen arauak (ISO) eta antzeko beste batzuk kontuan hartuta, neurri handiagoan bermatu behar du administrazioen arteko baldintza-berdintasuna.

<sup>1</sup> C 318 EO, 2006.12.23koa, 195. or.

<sup>2</sup> C 229 EO, 2006.9.22koa, 38. or.

<sup>3</sup> Europako Parlamentuaren Irizpena, 2007ko martxoaren 29koa (C 27 E EO, 2008.1.31koa, 140. or.), Kontseiluaren Jarrera Bateratua, 2008ko abenduaren 9koa (C 330 E EO, 2008.12.30ekoa, 13. or.) eta Europako Parlamentuaren Jarrera, 2009ko martxoaren 11koa (oraindik Egunkari Ofizialean argitaratu gabea).

- (10) Zuzentarau hau betetzeko beharrezko neurriak onartu behar dira, 1999ko ekainaren 28ko Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakiari jarraiki <sup>(1)</sup>; hau da, Batzordeari esleituriko eskumenak baliatzeko prozedurak ezartzen dituen erabakiari jarraiki.
- (11) Kontuan hartuta estatu kideek ezin dituztela beren aldetik zuzentarau honen helburuak behar bezala bete —hots, neurri baliagarriak sartzea eta ezartzea itsas garraioaren arlo politikoan— eta haien munta eta ondorioak ikusita, Erkidegoan hobeto lor daitezkeenez, Erkidegoak neurriak har ditzake, Tratatuako 5. artikuluan jasotako subsidiarotasun-printzipioari jarraiki. Artikulu horretan adierazitako heinekotasun-printzipioaren indarrez, Zuzentarau honek helburu horiek lortzeko beharrezko neurriak besterik ez ditu hartzen.

ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

*1. artikulua*

**Xedea**

1. Hau da Zuzentarau honen xedea:

- a) bermatzea estatu kideek beren betebeharrak modu eraginkorrean eta koherentean betetzen dituztela, bandera estatu gisa, eta
- b) itsas segurtasuna hobetzea eta estatu kideetako banderak dituzten ontziek eragindako kutsadura prebenitzea.

2. Zuzentarau honetaz gain, aplikatu egin beharko da Erkidegoko gainerako itsas araudia: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko azaroaren 5eko 2099/2002 (EE) Erregelamenduko <sup>(2)</sup> —Itsas segurtasunerako eta itsasontziek eragindako kutsaduraren prebentziorako komitea eratzen du (COSS)— 2. artikuluko 2. paragrafoan zehazten dena; eta Kontseiluaren 1999ko ekainaren 21eko 1999/63/EE Zuzentaraua <sup>(3)</sup>, itsasoko langileen lan-denbora ordenatzeari buruz Europako Erkidegoko Armadoreen Elkarteak (ECSA) eta Europar Batasuneko Garraio Sindikatuen Federazioak (FST) izenpetutako Akordioari buruzkoa.

*2. artikulua*

**Aplikazio-eremua**

Ontzia zer estaturen banderapean dagoen, estatu horretako administrazioari aplikatuko zaio Zuzentarau hau.

<sup>1</sup> L 184 EO, 1999.7.17koa, 23. or.

<sup>2</sup> L 324 EO, 2002.11.29koa, 1. or.

<sup>3</sup> L 167 EO, 1999.7.2koa, 33. or.

*3. artikulua*

**Definizioak**

Zuzentarau honi dagokionez, honako definizio hauek hartuko dira oinarri:

- a) «itsasontzia»: IMOk dagokien hitzarmenen aplikazio-esparruko estatu kideren baten banderapean dagoen itsasontzi oro, ziurtagiria behar badu.
- b) «administrazioa»: ontziak daraman banderari dagokion estatuko agintari eskudunak.
- c) «onetsiriko erakundea»: 391/2009/EE Erregelamenduari <sup>(4)</sup> jarraiki onetsiriko erakundea. Erregelamendua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2009ko apirilaren 23koa, itsasontzien ikuskapenean eta azterketan jarduten duten erakundeen arau eta erregela komunei buruzkoa da.
- d) «ziurtagiriak»: IMOk dagokien hitzarmenak betez derrigorrezkoak diren ziurtagiriak;
- e) «IMOren auditoria»: A.974 (24) Ebazpeneko xedapenak kontuan hartuta eginiko ikuskapena. Ebazpena erakunde horrek onartu zuen 2005eko abenduaren 1eko biltzarrean.

*4. artikulua*

**Estatu kide baten banderapean dagoen ontzi batek jardunean hasteko bete beharreko baldintzak**

1. Estatu kide baten banderapean dagoen ontzi bati jardunean hasteko baimena eman baino lehen, bandera estatu kideak egokiak iruditzen zaizkion neurriak hartu beharko ditu, ontziak aplikagarriak diren nazioarteko arauak eta erregelak betetzen dituela bermatzeko. Zehazki esateko, ontziaren segurtasun-erregistroak begiratu beharko ditu, arrazoizkoak diren bitarteko guztiak erabiliz. Beharrezkoa bada, aurreko bandera estatuari galdetu egin beharko dio, hark atzemandako segurtasuneko akatsen bat edo alderdiren bat oraindik ere konpontzeke dagoen ikusteko.

2. Bandera estatu batek aurrez beste estatu kide baten banderapean egondako ontziren bati buruzko interesa agertzen badu, prestasunez eman beharko dio azken horrek ontziari buruzko informazio zehatza, dela haren akatsei buruz, dela segurtasunarekin zerikusia duen beste edozein alderdiri buruz.

<sup>4</sup> Ikus Egunkari Ofizial honen 11. orrialdea.

*5. artikulua*

**Estatu kide baten banderapeko ontziak ibilgetzea**

Administrazio bati jakinarazten diotenean bere banderako ontzi bat ibilgetu egin duela portu bat zuzentzen duen estatuak, aztertu egin beharko du, horretarako ezarritako prozedurei jarraiki, ontzi hori IMOko dagokien hitzarmentara egokitzen dela.

*6. artikulua*

**Laguntza-neurriak**

Estatu kideek bermatuko dute, Zuzentarau honen ondorioetarako, beren banderapeko ontzietan buruzko datu hauek behinik behin erraz eskuratzeko modukoak izango direla:

- a) ontzia identifikatzeko datuak (izena, IMO zenbakia eta abar);
- b) ikuskapenen datak eta ikuskapen gehigarrienak (halakorik izan bada); baita auditorienak ere;
- c) ontziaren ziurtatze- eta sailkapen-lana egiten duten onetsiriko erakundeak zein diren;
- d) ontzia zer autoritate eskudunek ikuskatu duen, portua zuzentzen duen estatuko kontrolari buruzko xedapenei jarraiki, eta zer datatan ikuskatu duen;
- e) portua zuzentzen duen estatuak eginiko ikuskapenen emaitza (akatsak: bai ala ez; ibilgetzeak: bai ala ez);
- f) itsas ezbeharrei buruzko informazioa;
- g) aurreko hamabi hilabeteetan dagokion estatu kideko bandera eramateari utzi dioten ontziak zein diren.

*7. artikulua*

**Bandera estatuaren auditoria-prozesua**

Estatu kideek beharrezko neurriak hartuko dituzte, IMOK estatu kide bakoitzeko administrazioaren auditoria egin dezan gutxienez zazpi urtean behin, baldin eta IMOK baiezkua ematen badio dagokion estatu kideak behar bezala eginiko eskaerari. Estatu kideek auditoria horretako ondorioak argitaratuko dituzte, konfidentzialtasunari buruzko nazioarteko legeriari jarraiki. Artikulu hau 2017ko ekainaren 17an iraugiko da, beranduenez, edo aurreko dataren batean, baldin eta Batzordeak IMOko kide diren estatu kideei zuzendutako derrigorrezko auditoria-plan bat

indarrean sartzen badu, 10. artikuluko 2. paragrafoan xedatutako arautze-prozedurari jarraiki.

*8. artikulua*

**Kalitatea kudeatzeko sistema eta barne-ebaluazioa**

1. Beranduenez ere 2012ko ekainaren 17rako, estatu kide bakoitzak kalitatea kudeatzeko sistema bat egin eta ezarriko du, banderako gaietarako eskuduntza duen administrazioaren jardueretarako. Kalitatea kudeatzeko sistema hori nazioarteko kalitate-arau aplikagarriei jarraiki egiaztatuko beharko da.

2. Zerrenda beltzean dauden estatu kideek edo ondoz ondoko bi urtetan zerrenda grisean daudenek —portua zuzentzen duen estatuaren berrikuspenari buruzko Parisko Akordioaren Memorandumaren azken urteko txostenean argitaratutako zerrendak kontuan hartuta— bandera estatu gisa eginiko jardunari buruzko txostena igorriko diote Batzordeari, urteko txostena argitaratu eta lau hilabetera, gehienez ere.

Txostenean adierazi eta aztertu beharko dute zergatik sartu diren ontziak zerrenda beltzean edo grisean; alegia, zer arau-haustek eragin duen ibilgetzea eta akatsa dagoela adieraztea.

*9. artikulua*

**Txostenak**

Bost urtean behin, eta lehen aldiz 2012ko ekainaren 17an, Batzordeak txostena aurkeztuko dio Europako Parlamentuari eta Kontseiluari, Zuzentarau honen aplikazioari buruz.

Txosten horretan, estatu kideek bandera estatu gisa izaniko jardunari buruzko ebaluazioa ere sartuko da.

*10. artikulua*

**Komite-prozedura**

1. Batzordeak Itsas Segurtasunerako eta Itsasontziek eragindako Kutsaduraren Prebentziorako Komitearen («COSS Komitea») laguntza izango du. Komite hori 2009/2002 (EE) Erregelamenduko 3. artikuluko ezarritakoa betez sortu da.

2. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaionean, 1999/468/EE Erabakiko 5. eta 7. artikuluko aplikatutako dira, eta 8. artikuluan xedatutakoa ere beteko da.

1999/468/EE Erabakiko 5. artikuluko 6. paragrafoan jasotako epea bi hilabetekoa izango da.

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

*11. artikulua*

**Barne-zuzenbidean sartzea**

1. Estatu kideek Zuzentarau hau betetzeko behar diren lege-, arau- eta administrazio-xedapenak, 2011ko ekainaren 17a baino lehen jarriko dituzte indarrean. Batzordeari, berehala emango diote horren berri.

Estatu kideek xedapen horiek onartzen dituztenean, xedapenok aipamena egingo diote Zuzentarau honi, edo aipamen horrekin batera azalduko dira argitalpen ofizialetan. Estatu kideek aipatutako erreferentziaren modalitateak ezarriko dituzte.

2. Estatu kideek Batzordeari jakinaraziko dizkiote Zuzentarau honen esparruan zehaztutako barne-zuzenbideko xedapen nagusiak.

*12. artikulua*

**Indarrean sartzea**

Zuzentarau hau *Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean* argitaratzen denetik hogeit hamar egunera sartuko da indarrean.

*13. artikulua*

**Hartzaileak**

Zuzentarau honen hartzaileak estatu kideak dira.

Estrasburgon emana, 2009ko apirilaren 23an.

*Europako Parlamentuaren izenean      Kontseiluaren izenean*

*Lehendakaria*

*Lehendakaria*

H.-G. PÓTTERING

P. NECAS